

Miren Mujika Laguntzaileak, Ohorezko izendatu zan Batzar Nagusian irakurritako idatzia

Lehenengo eta behin eskerrak emon gura deusaguz Labayru Fundazioari gaur eskeintzen deuskuen ohorezko aipamenagaitik; holako saria jasoteko guk ez dogu, nik behinik behin ez, merezimendurik egin eta.

Isilean dana asmau eta prestau ebenak, beste batzuk izan ziran, meritua hareena da, eta, egotekotan, eurekin egongo ginateke zordun.

Lehenengo aldiz Labayru Ikastegia sortzeko egitasmoaren barri entzun gendunean, lagunen arteko alkarrizketa baten izan zan, San Antonen igandeko mezatik urteterakoan.

Holan jakin genduan Bizkaiko Eleizbarrutiak Euskal Herriko kulturari laguntzeko Ikastegi bat sortzeko asmoa eukala, euskal heziera adar desbardinetatik indartzea bere helburua izanik.

Egintzaz beterik agertzen jakun Derioko ikastaroa! Garrantzi handikoa, oso beharrezkoa eta orduan bizi zan girorako adoretzu eta ausarta.

Albistea begi onez hartu genduan, eta handik laster sortu zan Labayru Ikastegira, gogoz eta pozez bazkidetu ginan.

Ikastegiaren sortzaileak gogoratu gura dodaz, hareen izenak aitatz, zeren guk gaur hartzen dogun ohorezko aipamen hau hareekaz gura dogu, eta batez be behar dogu, alkarbanatu.

JON ARRIETA	ANDER MANTEROLA
JUAN JOSE ASPURU	MIREN MUGICA
JAVIER ASTORKI	JOSE M ^a MUGICA
CONCHITA BARRUTIA	TERE ROTAETXE
JUAN BEITIA	MIKEL SAENZ DE CABEZON
TXOMIN BEREZIARTUA	JUAN M ^a URIARTE
BERNABE JAUREGI	IGNACIO URIBARRI
NIKOLA MADARIAGA	JUAN LUIS VILLOTA
JON MALAXETXEBARRIA	BEGOÑA ZEARRA
LUIS BENITO DEL VALLE	SABIN ZUBIRI

Asko dira hareen artetik itxi gaituenak, eta Labayruren beste hildako guztiakaz batera gogoan euki daikeguzanak. GOIAN BEGOZ.

ZORIONAK, Labayru Ikastegia-Fundazioa! Asmo ona zuena, bai, etorkizunera begira, baita be zorionak egindako lan apartagaitik.

Ia berrogei urte pasa ondoren irmo eta sendo mantendu zaralako ta gaurdaino zutik iraun dozulako.

Eskerrik asko!

Miren Mujika, 2016. apirilak 7.